

2020/03/31

EAEn Espainiako Gobernu ordezkari, Denis Itxaso Jaunari:

Idatzi honen bidez, Garbiñe Aranburu Irazusta eta Mitxel Lakuntza Vicario, hurrenez hurren, LAB eta ELA sindikatuetao Idazkari Nagusiek, ondoko eskaera egin nahi dizute:

LEHENA: Bizi dugun salbuespen egoera honetan, sindikatu hauentzat lehentasunezkoa da COVID-19aren zabalpenari mugak jarri eta langileen eta herritarren osasuna zaintzeko erabakiak hartzea.

BIGARRENA: Lehenik eta behin, oinarrizko zerbitzuetan lanean ari diren langileei beharrezkoak dituzten babes neurri guztiak bermatu behar zaizkie. Horrekin batera, lana modu egokian aurrera ateratzeko beharrezkoa duten langile kopurua ere bermatu behar da, oinarrizkoak diren lanetan diharduten langileen osasuna zaindu eta langile horiek gaixotasuna hedatu ez dezaten.

HIRUGARRENA: Pandemiari mugak jartzeko konfinamendu neurri zorrotzagoak behar dira, oinarrizkoa ez den jarduera ekonomiko oro eten egin behar da. Osasungintzan lan egiten duten 1.200 langile baino gehiagok adierazi duten moduan, eta komunitate zientifikoak ere horrela gomendatu duelako.

LAUGARRENA: Momentu honetan EAEn infekzio foko nagusiak lantokietan daude. Ez zaigu onargarria iruditzen lantegi handiak irekitzeko erabakia hartzea, oraindik ere horietan prebentzio neurriak bermatuta ez daudenean. Ondasunen esportazioan eta inportazioan ari diren enpresa batzuetan COVID-19arekin gaixotutako langile kopuruak argi erakusten du ezinbestean jarduera eten behar dela (Mercedesen 40 kasutik gora konfirmatuta daude eta 300etik gora aztertzen ari dira).

BOSGARRENA: Madrilgo Gobernuak COVID-19aren aitzakia erabili du, alarma egoera ezarri eta zentralizazioaren aldeko apustu argi bat egiteko.

SEIGARRENA: Euskal Herrian, kasu honetan EAEn, erabaki behar dira bizi dugun salbuespen egoerari aurre egiteko neurriak. Baita oinarrizkoa ez den jarduera ekonomikoaren etetea nola egingo den ere, hemen erabaki behar da bertako eragile politiko, sindikal eta patronalaren gehiengoaren artean.

ZAZPIGARRENA: ez zaigu onargarria iruditzen, CONFEBASKen interesak soilik defendatzen dituen Jaurlaritzarekin negoziazio bide bat zabalik mantentzea eta gehiengo sindikala negoziazio horietatik kanpo egotea. Langileon osasuna eta lan baldintzak daude jokoan eta langileongan eragina duten erabakien parte izatea dagokigu euskal sindikatuoi.

Besterik gabe eta gure eskaera kontuan izango duzulakoan, agur bat.

Mitxel Lakuntza
ELAko idazkari nagusia

Garbiñe Aranburu
LABeko idazkari nagusia

2020/03/31

Señor Denis Itxaso, delegado del Gobierno de la CAV:

A través de este escrito, Garbiñe Aranburu Irazusta y Mitxel Lakuntza Vicario, Secretarios Generales de los sindicatos LAB y ELA, quieren dirigirle las siguientes peticiones:

PRIMERO: En esta situación excepcional que estamos viviendo, para estos sindicatos es prioritario limitar la expansión del COVID-19 y adoptar medidas para cuidar de la salud de la ciudadanía.

SEGUNDO: En primer lugar, se debe proporcionar a todos los trabajadores y trabajadoras que realizan actividades esenciales todas las medidas de protección que necesitan. Junto con ello, también se debe garantizar el número necesario de trabajadores y trabajadoras para poder realizar su trabajo de forma adecuada, para poder cuidar su salud y para que estos trabajadores y trabajadoras que trabajan en actividades esenciales no propaguen la enfermedad.

TERCERO: Para poner límites a la pandemia se precisan medidas de confinamiento más estrictas, se debe paralizar toda actividad económica que no sea esencial, tal y como han señalado más de 1.200 trabajadores y trabajadoras de la sanidad y porque la comunidad científica así lo ha recomendado.

CUARTO: En este momento los principales focos de infección de la CAV están en los centros de trabajo. No nos parece de recibo adoptar la medida de abrir los grandes centros cuando en éstos todavía no se han garantizado las medidas de prevención. El número de trabajadores y trabajadoras enfermas de COVID-19 en algunas de las empresas dedicadas a la exportación e importación de bienes muestra claramente que es imprescindible detener la actividad (en Mercedes hay más de 40 casos confirmados y están analizando más de 300).

QUINTO: El Gobierno de Madrid ha utilizado la excusa del COVID-19 para decretar la situación de alarma y realizar una apuesta clara por la centralización.

SEXTO: En Euskal Herria, en este caso en la CAV, es donde deben decidirse las medidas para hacer frente a esta situación de excepción. Y también cómo se llevará a cabo la paralización de la actividad económica no esencial, que debe decidirse entre la mayoría de agentes políticos, sindicales y patronales de aquí.

SÉPTIMO: no nos parece de recibo mantener una vía de negociación con el Gobierno Vasco, que sólo defiende los intereses de CONFEBASK y que la mayoría sindical esté fuera de esta negociación. Están en juego la salud y condiciones laborales de los y las trabajadoras y nos corresponde a los sindicatos vascos ser parte en estas decisiones que afectan a los y las trabajadoras,

Esperando que tenga en cuenta nuestra decisión, un saludo.

Mitxel Lakuntza
Secretario general de ELA

Garbiñe Aranburu
Secretaria general de LAB